

Urrengo Azkue jaunak irakurri dau aurren izkuntza gaitzat daukan lan polit bat.

Eta beste barik araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

* * *

Donostia'n, Ekauta'ren Jauregian, 1942'gko Garagarrila'ren 24'an, il oneri dagokon batzarra egiteko, Euskaltzaindia batzen da. Batzarkide, Azkue, Urkijo, Inzagaray, Irigaray, Etxaide ta Oleaga euskaltzainak dira. Maipuru Azkue jauna.

Araudizko otoitzaz asten da batzarra eta lenagoko batzarraren agiria irakurri ta ao batez onesten da.

Urrengo Etxaide euskaltzain barri jaunak, beste batzarkide guztien ondo etorria artu ta "Jatorrizko Euskeraren Asterpenaldia" deritxon lan eder bat irakurten dau. Azkue jaunak darantzutso, irakurritako lanaren da irakurlearen gorapenak egini ta oar egokiak arezaz azaldurik.

Arretaz eta atseginez entzun dira lan biok.

Eta beste barik araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

* * *

Bilbao'n 1942'gko Urrila'ren 29'an, Euskaltzaindia'ren etxean Azkue jauna maipuru dala biltzen dira Urkijo, Zamarripa, Etxaide ta Oleaga euskaltzain jaunak il oneri dagokon batzarra egitera. Federico Belaus-tegigoitia urgazlea ere etorri da batzar onetara.

Araudizko otoitza egin-eta, lenagoko batzarraren agiria irakurri da ta ao batez onetsi.

Urrengo, Federico Krutwig Sagredo euskaltzain-urgazle'tzat artzea erabagi da.

Gero Azkue jaunak jarraitu dau irakurten aurreko batzarretan aita-turiko lana, batzarkideen oar egokiak entzunik eta arturik.

Beste barik eta araudizko otoitzaz batzarra amaitu da.

* * *

Donostia'n 1942'gko Lotazila'ren 18'an, Gipuzkoa'ko Ekauta'ren jauregian, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Inzagaray, Etxaide ta Oleaga euskaltzainak aurkez dirala, Euskaltzaindia'k dagi il oneri dagokon batzarra.

Batzar au araudizko otoitzaz asten da.

Lenaurreko batzarra'ren agiria irakurririk, ao batez onetsi da.

Urrengo pozk dantzu Euskaltzaindia'k datorren negu-udabarrian jarraituko dala Bizkaiko Ekauta'ren "Junta de Cultura" deritxon bazkunak euskereaz antolatutako ikastaroa.

Azkue jaunak daragoyo orainarteko batzarretan asiriko lana irakurten.

Ta beste barik araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

* * *

Bilbao'n 1943'gko Zezeilaren 26'an, Euskaltzaindia'ren etxean Azkue jauna maipuru dala ta Irigoyen, Etxaide, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak, eta Krutwig euskaltzain-urgazlea, aurkez dagozala, egiten da Euskaltzaindia'ren il onetako batzarra.

Araudizko otoitzaren urrengo, lenagoko batzarra'ren agiria irakurri ta ao batez onetsi da.